

Montehermosok “Amama” filmaren mundua hurbilduko du arte erakusketa baten bidez

Erakusketa urtarrilaren 20tik otsailaren 19ra arte egongo da ikusgai, eta Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolak zine-foroa antolatu du horren osagarri urtarrilaren 26an

Euskadi tradizionalaren eta modernoaren arteko borroka eta kontraesanean dauden bi mundu horien balio-aldaketa dira “Amama. Sustraiak. Enborra. Adarrak” erakusketaren ardatzetako batzuk; ostiraletik hasita otsailaren 19ra arte ikusi ahalko da Montehermoso kulturunean “Amama” filmaren ikuspegi artistikoa ematen duen erakusketa. Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren jardueren barruan antolatu da.

Udalak eta filmaren zuzendari eta erakusketaren sustatzaile Asier Altunak aurkeztu dute gaur goizean proposamena, zeina filmaren protagonista Amaiaen artelanak abiapuntutzat dituzten argazkiek, bideoek, olerkiek, musikak eta olio-margoek osatzen baitute. Kontraesanean dauden bi munduren arteko produktua da Amaia. Artearen bidez aurkitu beharko du bere bidea: baserritik irten, aitari aurre egin, zauriak eragin eta lotura hautsi. Erakusketaren bidez, egileek hausnartzera gonbidatzen gaituzte, beste modu batez begiratzera gure gizartean urte gutxitan bizi izan genuen eboluzioa, iraganaren eta orainaren arteko borroka, hiriaren eta baserriaren artekoa, guraso eta seme-alaben artekoa.

Filma egin zuen taldeak —Txintxua Films da ekoiztetxea— landu ditu erakusketako argazkiak eta bideoak. Donostiako Zinema Jaialdiko atal ofizialean estreinatu zen filma, eta euskal zinemaren alorreko Irizar saria lortu zuen. Estreinatu zenetik mundu osoko jaialdietan hartu du parte, besteak beste, Cinemamed (Montpelier), Festa del cinema (Erroma), Palm Spring IFF (AEB) eta Tromso IFF (Norvegia) jaialdietan.

Erakusketaz gain, urtarrilaren 26an zine-foroa egingo da, eta zuzendaria izango da bertan.

Montehermoso acerca el mundo de la película “Amama” a través de una exposición artística

La muestra, abierta del 20 de enero al 19 de febrero, se completa con un cine forum el 26 de enero organizado por la Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las Mujeres

La pugna entre la Euskadi tradicional y la moderna y el cambio de valores en dos mundos en contradicción son algunos de los temas que centran la exposición “Amama. Sustraiak. Enborra. Adarrak” que desde este viernes hasta el próximo 19 de febrero acercará al centro cultural Montehermoso esta artística visión de la película “Amama”. La iniciativa está integrada dentro de las actividades de la Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las Mujeres.

El Ayuntamiento y el director del film e impulsor de la muestra, Asier Altuna, han presentado esta mañana esta propuesta integrada por fotografías, trabajos en vídeo, poemas, música y óleos que tienen como punto de partida la obra artística de Amaia, la protagonista de la película. Amaia es el producto de dos mundos en contradicción. A través del arte tendrá que encontrar su camino, salir del caserío, enfrentarse a su padre, provocar heridas y romper el vínculo. A través de esta muestra artística sus autores nos invitan a reflexionar, a ver con otra mirada esa evolución que vivimos en nuestra sociedad en pocos años, el conflicto entre el pasado y el presente, entre lo urbano y lo rural, entre padres e hijos.

Las fotos y trabajos de vídeo que componen esta exposición han sido realizadas por el equipo de la película, producida por Txintxua Films. La película se estrenó en la sección oficial del festival de cine de San Sebastián, donde obtuvo el premio Irizar del cine vasco. Desde su estreno ha participado en festivales por todo el mundo: entre otros, Cinemamed de Montpellier, Festa del cinema di Roma, Palm Spring IFF de USA, Tromso IFF de Noruega.

Además de la exposición, el próximo 26 de enero se celebrará un cineforum con presencia del director.